

Pentekoste ondorengo igandean
HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA (B)

Otoitza

Jainko Aita,
egiaren Hitza eta santutasunaren Espiritua mundura bidaliz,
zeure misterio miragarria agertu zenigun gizon-emakumeoi;
emaguzu, egiazko sinesmena aitortzen dugunoi
betiereko Hirutasunaren aintza ezagutzea
eta haren Batasun ahalguztiduna gurtzea.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA Dt 4, 32-34. 39-40

*Jauna da Jainko bakarra
goiko zeru hartan eta beheko lur honetan; ez da besterik.*

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Galde iezaiezu antzinako egunei, zu baino lehenagokoei; galde, Jaunak gizakia lur gainean sartu zuenetik oraindainokoei: bai al da zerumuga batetik besteraino hitz hau bezain handirik? Entzun al da horrelakorik? Bai ote da herririk, zuk bezala Jainkoaren mintzoa sugarren erditik hitz egiten entzun ondoren, bizirik gelditu denik? Bai al da jainkorik, herrien artean Beretzat herri bat hartu nahi izan duenik, Jaunak, zuen Jainkoak, Ejipton zuekin egin zuen bezala: ahaleginez, ezaugarritz eta mirariz, gudu eta esku azkarrez, beso indartsuz eta izu gorria dariola?

Jakin ezazu, beraz, gaur, eta sinetsi bihotzez, Jauna dela Jainko bakarra, goiko zeru hartan eta beheko lur honetan; ez da besterik. Eta bete itzazu, gaur ematen dizkizudan lege eta aginduak, zu eta zure ondorengo seme-alabak zoriontsu izan zaitezten, eta bizitza luzea izan dezazuen, Jaunak, zure Jainkoak, betiko ematen dizun lurraldean.

ERANTZUN SALMOA: Sal 32, 4-5. 6 eta 9. 18-19. 20 eta 22

R/. Bai dohatsu,
Jaunak bere oinorde hautatu duen herria!

Zuzena baita Jaunaren hitza,
leiala Hark egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
haren graziaz lurra dago bete. **R/.**

Jaunaren hitzak egin ditu zeruak,

haren aho-arnasak izar mordoak.
Hark esanik eginak baitira,
Hark agindurik izan ere dira. **R/.**

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
haren maitasuna itxaroten dutenengana;
haiek baititu heriotzatik aterako,
eta gosetean aseko. **R/.**

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
lagun eta babes Bera baitugu.
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu gure uste ona. **R/.**

II. IRAKURGAIA: Erm 8, 14-17

*Seme-alabatzako Espiritua hartu duzue,
eta Horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!»*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Jaungoikoaren Espirituak darabiltzanak, haiek dira Jaungoikoaren seme eta alaba. Ez duzue hartu morrontzarako espiritua, berriz ere beldurrean erortzeko; seme-alabatzako Espiritua hartu duzue, eta Horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!»

Espíritu horrek gure espirituarekin batera aitortzen du, Jaungoikoaren seme eta alaba garela. Eta seme eta alaba bagara, baita oinordeko ere; Jaungoikoaren oinordeko, eta Kristoren oinordekide; nekeetan haren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izan gaitezen.

EBANJELIOA: Mt 28, 16-20

Aleluia: Ik. Ap 1, 8b

R/. Aleluia.

V/. Aintza Aitari, eta Semeari,
eta Espiritu Santuari;
baden eta bazen eta badatorren Jaungoikoari. **R/.**

*Bataia itzazue Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek aurrez agindu zien mendira. Hura ikusi zutenean, ahuspez agur egin zioten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden.

Eta Jesusek, hurbildurik, honela hitz egin zien: «Aginpide oso-osoa eman zait Niri zeru-lurretan. Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik; bataia itzazue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, eta erakutsi haiei, Nik agindu dizuedan guztia betetzen. Begira, Ni zuekin nauzue egunero, munduaren azken eguna arte».

Oparigaien gainekoa

Zure izen santuari dei egiten diogu, Jauna;
egizu santu gure eskaintza hau
eta egin gaitzazu geu ere Zeuretzat betiko opari eder.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Hirutasun guztiz santuaren misterioa

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zu, Aita,
zeure Seme bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin,
Jainko bakarra zara, Jaun bakarra;
ez pertsona bakarra,
baizik eta izate batean hiru pertsona.

Eta, Zuk irakatsirik,
zure aintzaz sinesten duguna bera,
ezeren alderik gabe, aitortzen dugu,
bai zure Semeaz, bai Espiritu Santuaz.

Honela, egiazko eta betiko Jaungoiko aitortzen zaitugula,
aldi berean hiru pertsona gurtzen ditugu,

hirurak izate berekoak
eta handitasun berdina dutenak.

Zu zaituzte goستن aingeruek eta goi-aingeruek,
baita zeruko talde guztiek ere,
beti eta beti bihotz batez [esanez] kantari:
Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jaungoiko gure Jauna,
betiereko Hirutasun santua eta haren Batasun hautsezina aitortu ditugu;
egizu, aurki dezagula hartu dugun sakramentu honetan
gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo.

**Hirutasun Guztiz Santu ondorengo Igandean
KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK (B)**

Otoitza

Jesu Kristo gure Jauna,
sakramentu harrigarri honetan
zeure nekaldiaren oroigarria utzi diguzu;
egizu, arren,
gorets dezagula begirune osoz zure Gorputz-Odolen misterioa,
gugan suma ditzagun beti zure erospenaren ondorenak.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean.

I. IRAKURGAIA: Ir 24, 3-8

*Hau elkargoaren odola da,
Jaunak zuekin egiten duen elkargoarena.*

Irteera liburutik

Egun haietan, jaitsi zen Moises, eta Jaunaren hitz eta agindu guztiak jakinrazi zizkion herriari; eta herri guztiak, aho batez, erantzun zion: «Beteko dugu Jaunak esandako guztia».

Moisesek idatzi zituen Jaunaren hitz guztiak; eta goizean goiz jaiki, eta mendiaren oinean aldare bat egin zuen, eta hamabi harri ipini zituen, Israelgo hamabi leinuen oroigarri. Eta israeldar mutil batzuei agindu zien, erre-opariak eta zekorrak Jaunari eskaintzeko, bake-opari bezala. Moisesek, odolaren erdia hartu eta ontzietan sartu zuen; eta beste erdia aldare gainean isuri.

Eta itun-ageria harturik, herriari irakurri zion. Eta herriak erantzun zuen: «Beteko dugu eta egingo, Jaunak esan duen guztia». Moisesek odola hartu eta herria zipriztindu zuen, esanez: «Hau elkargoaren odola da: Jaunak bere agindu guztietaz zuekin egiten duen elkargoarena».

ERANTZUN SALMOA: Sal 115, 12-13. 15-16. 17-18

**R/. Salbamen-edontzia dut hartuko,
eta Jaunaren izena deituko.**

Edota: **Aleluia.**

Zer bihurtuko diot Jaunari,
eman dizkidan guztiengatik?
Salbamen-edontzia dut hartuko,

eta Jaunaren izena deituko. **R/.**

Jaunaren begietan balio handikoa
haren zintzoen herioa.
Zure morroi nauzu ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen semea,
askatu dituzu nire kateak. **R/.**

Eskainiko dizut gorets-oparia,
deituko dut, Jauna, zure izena.
Emango dizkiot Jaunari zin egindakoak,
herri guztia begira dagoela. **R/.**

II. IRAKURGAIA: Heb 9, 11-15

*Indartsuago izango da Kristoren odola
gure barrua garbitzeko.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Kristo, beti iraungo duten ondasunen apaiz nagusi bezala etorri zaigu; haren etxola handiagoa eta osoagoa da; ez giza eskuz egina, hau da, sortutako mundu honetakoa; Kristo ez baita Santuregian aker-odolez, ez zekor-odolez sartu, bere-bere odolaz eta behin betiko baizik, honeia betiko askatasuna irabazirik.

Aker-odolak eta zezen-odolak, eta bigantxa errearen hauts zipriztinduak, kutsudunak garbitzeko indarra baldin badu, azaleko garbitasuna emanez, zenbatez indartsuago ez da izango Kristoren odola, gure barrua egite usteletatik garbitzeko, guk Jaungoiko bizia gurtu dezagun, betiko Espirituaren indarrez bere burua Jaungoikoari opari garbi eskaini dionez gero!

Horregatik, Kristo elkargo berri baten bitartekoa da, eta heriotza bat izan da, lehengo elkargoko bekatuak ordaintzeko; horrela, «deituek» betiko oinordetasunaren agintzaria berengana dezaten.

Neurtitza

[Sion, goretsazu Jauna,
Salbatzaille ta artzaina,
gorazarre kantutan.
Saia zaitetz indar guztiz,
motz geldituko baitzara
haren gorespenetan.

Ogi bizi pizgarria,
abestigai berezia

egun eskaintzen zaigu.
Azken afari santuan
Hamabiei emana
sendo sinesten dugu.

Aho betez, gogo betez,
barneko pozetan gainez,
goraipa dezagula.
Urtebetetzea baita
mahai santu hau lehenik
Kristok sortu zigula.

Errege-mahai berrian
Pazko berriarekin da
Pazko zaharra galtzen.
Egunak gaua bezala,
Pazko berriak itzala
argiz du gaineztatzen.

Kristok azken afarian
Hark egina berritzeko
haren oroiz, zioen.
Hark agindu bezala,
ogi-ardoak ditugu
Gorputz-Odol egiten.

Kristauok dugu sinesgai:
ogia Gorputz, ardoa
Odol, dela bihurtzen.
Ez ikusiz, ez ulertuz,
baina beroki sinetsiz,
zalantza dugu gaintzen.

Ogi-ardo itxuretan,
ez ogi-ardo benetan,
badugu zertaz harri!
Gorputz-Odol banaetan
osorik dago bietan
Kristo gure janari.

Hartzen duenak ez hausten,

ez puskatzen, ez bereizten,
osorikan du jaten.

Batek hartu, milak hartu,
milak beste batek jan du,
janez ez da amaitzen.

On-gaiztoek berdin hartzen;
ez fruitu berdinarekin:
hari gozo, honi min.
Bata hil, bestea piztu,
janari bera jan, eta
zer azken banarekin!

Otamena puskatzean,
osoan hainbat zatian
badela, sinetsazu.
Itxura zati eginez,
Kristorik ez da zatitzen,
neurri berean duzu.]

Hona aingeruen ogia,
bidaztientzat janari;
semeen ogi garbia,
ez zakurrentzat jaki.

Isaaken oparian,
Pazkotako bildotsean,
«mana»-ren irudipean
zaigu adierazten.

Artzain on, egiazko ogi,
Jesus, kupi zakizkigu;
jan honetaz bizkor gaitzazu,
ta betiko atsedena
zeruan emaguzu.

Lurrean bizi geraino,
Zuk janaritzen gaituzu,
Ahaltsu-jakintsu Horrek,
zeruan etxeko eta
mahai-lagun egin gu.

Amen. Aleluia.

EBANJELIOA: Mk 14, 12-16. 22-26

Aleluia: Jn 6, 51-52a

R/. Aleluia.

V/. Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia –dio Jaunak–;
ogi honetatik jaten duena betirako biziko da. **R/.**

Hau nire gorputza da. Hau nire odola da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Ogi hilen lehenbiziko egunean, pazko-bildotsa opari eskaintzen zenekoan, ikasleek honela esan zioten Jesusi: «Gu nora joatea nahi duzu, pazko-afaria egiteko gauzak prestatzera?» Jesusek bere ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte hirira; gizon bat aterako zaizue bidera, ur-suila daramala; jarrai iezaiozue; eta sartzen den tokian, esaiozue etxe-nagusiari: Hau dio Maisuak: "Non da nire afal-tokia, nire ikasleekin Pazkoa jan dezadan?" Hark, etxe-goian, gela handi bat erakutsiko dizue jarlekuekin. Presta iezaguzue hantxe afaria». Joan ziren ikasleak; eta, hirira iritsi zirenean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena; eta pazko-afaria prestatu zuten.

Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu zuen eta eman zien, esanez: «Hartzazue: hau nire gorputza da». Gero, edalontzia hartu eta, esker-otoitza eginez, eman zien eta guztiek edan zuten bertatik. Eta esan zien: «Hau nire odola da, itunaren odola, guztientzat isurtzen dena. Hara Nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, ardo berria Jainkoaren erreinuan edango dudana eguneta arte».

Abestu zituzten salmoak, eta Oliamendira atera ziren.

Oparigaien gainekoa

Emazkiozu, Jauna, zeure Elizari batasuna eta bakea,
hori adierazten baitute
ekarri dizkizugun eskaintza hauek.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jesus Jauna,
zeruko mahaiaren agiria eman diguzu
orain hartu ditugun zeure Gorputz-Odoletan;
eraman gaitzazu, arren,

zure jainkotasuna bete-betean ezagutzera.
Errege bizi baitzara.

Martxoak 19
SAN JOSE,
ANDRE MARIA BIRJINAREN SENARRA

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
 gizadi berriaren hasieran,
 Kristo Salbatzailearen zaintzaile leial
 egin zenuen Jose santua;
 egizu, beronen otoitzez,
 Elizak ere leial zaindu dezala
 Jesu Kristoren salbamen misterioa,
 eta bere betera eraman.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 16

Jainkoak Haren aita Dabiden errege aulkia emango dio.

Samuelen liburutik

Egun haietan, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz, eta esaiozu nire morroi Dabidi: "Hau dio Jaunak: Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atseden hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zure errailetatik aterea, eta sendotu egingo dut Haren erreinua. Hark etxea eraikiko dio nire izenari, eta Nik sendotu egingo dut Haren errege aulkia betiko. Aita izango nau Hark Ni, eta Hura seme izango dut Nik. Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege aulkiak sendo iraungo du beti"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

**R/. Jauna, zure maitasuna abestuko dut
 betiren beti.**

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
 zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.
 Esana baituzu: «Maitasuna betiko dut eraiki»,
 zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi. R/.

«Egin dut nire hautatuarekin ituna,
Dabid nire morroiari zin egin niona:
Betiko sendotuko dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Berak deituko nau: «Zu zaitut Aita,
ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza».
Gordeko diot beti nire maitasuna,
zintzo edukiko, egin nion ituna. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 4, 13. 16-18. 22

*Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen
itxaropen guztien kontra.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Lurraren jabe izango zirelako agintzaria ez zitzaien egin Abrahami eta haren ondorengoei Legea betetzeagatik; sinesmenaren zuzentasunagatik baizik. Dena sinesmenetik dator, eta dena dohain hutsa da; horrela agintzariak ondorengo guztientzat irauten du; ez Legetik diren ondorengoentzat bakarrik, baita Abrahamen sinesmenetik direnentzat ere; hau guztien aita baita, idatzita dagoenez: «herri askoren aita egin zaitut». Abrahamek, hilak bizten dituen Jainkoa, eta ez direnak izatera deitzen dituen, aurkitu zuenean, sinetsi egin zion. Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: «hainbestekoa izango da zure ondorea». Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

EBANJELIOA: Mt 1, 16. 18-21. 24a

Aleluia eta Ebanjelio aurreko txatala: Sal 83, 5

(R/. Aleluia).

V/. Bai dohatsu, zure etxean bizi direnak,
beti Zu goresten ari direnak! (R/.)

Josek Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariarengandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren jaiotza honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserek

hitzemana zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen.

Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion: «Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuarengandik baitator. Semea izango du, eta zuk «Jesus» ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Jose santua

Maria Birjinagandik jaiotako zure Semearen
zerbitzari leial izan zen bezala,
egizu, guk ere bihotz garbiz zerbitza zaitzagula zure aldarean.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna, zeure familia hau
Jose dohatsuaren jaia pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu gaitzazu beti zeure babespean
eta gorde gukan Zuk maitasun haundiz emandako dohainak.
Jesu Kristo.

Ekainak 29
SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK

Otoitza

Jainko Jauna, alaitasun santuz betetzen gaituzu
 Pedro eta Paulo apostoluen jai honetan;
 egizu, zure Elizak
 kristau fedearen lehenengo berria haiengandik izan zuen bezala,
 haien erakutsietan zintzo jarrai dezala beti.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 12, 1-11

*Bai, egia zen;
 Jaunak Herodesen eskuetatik atera nau.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Herodes erregea gogor erasotzen hasi zen eliztar batzuren aurka, eta Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion. Eta judutarrei poz ematen ziela ikusirik, bahierazi egin zuen Pedro ere. Bazko astea zen. Eta, loturik, espetxean sar erazi zuen, eta launa gudariko lau sailek zaindu zezatela agindu zuen. Bazko ondorenean herriaren aurrean hil erazteko asmoa zuen. Pedro giltzapean ondo zainduta zeukaten bitartean, Eliza otoitzean ari zitzaion Jaungoikoari haren alde etengabe.

Herodesek hura atera behar zuen aurreko gauean, lo zegoen Pedro, bi gudariren erdian, haiei katez loturik. Eta espetxezainak ate aurrean zeuden, hura zaintzen.

Bat-batean Jaunaren aingerua agertu zen, eta gela barrua argitu egin zen. Eta saihetsean ukituz, esnarazi zuen Pedro, esanez: «Jaiki azkar». Kateak eskuetatik erori zitzaizkion. Eta aingeruak berriro: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak».

Hala egin zuen Pedrok; eta aingeruak berriz: «Jantz soingainekoa; eta jarrai niri». Pedro, atera eta atzetik zihoakion. Ez zuen uste, ordea, aingeruak ari zuena egia zenik; irudipena zeritzan. Eta lehenengo eta bigarren zaintzaile taldeak igaro ondoren, herrira daraman burdinezko ateraino iritsi ziren, eta berez zabaldu zitzairen. Atera eta kale bat igaro zuten; orduan, aingerua bat-batean ezkutatu egin zitzaion.

Pedrok, bere baitara etorririk, honela zioen: «Bai, egia zen; Jaunak bere aingerua bidali du, Herodesen eskuetatik eta judutarren ikusinahi guztietatik ni ateratzeko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 4-5. 6-7. 8-9

R/. Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
nire ahoan beti Haren gorespena.
Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Haundietsi nirekin Jauna,
ospa dezagun batean Haren izena.
Jaunaren bila nenbilen eta entzun ninduen,
beldur guztietatik atera ninduen. R/.

Begira iezaiozue alai zaitezten,
zuen aurpegiak lotsa ez daitezen.
Dohakabe honek oihu egin zuen, eta Jaunak entzun,
estualdi denetatik atera du bere eskuz. R/.

Jaunaren aingeruak txabolak ipintzen ditu
beldur diotenen inguruan, eta babesten ditu.
Dasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna,
bai dohatsu, Harengana ihes ez doana. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Tm 4, 6-8. 17-18

*Orain prestaturik dago niretzat
zuzentasunaren koroa.*

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Neure odola isurtzeko zorian nago ni; nireak laster egingo du. Borroka ona egin dut, ibilaldia bukatu dut, gorde dut sinesmena. Orain prestaturik dago niretzat zuzentasunaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, egun hartan emango didana; ez, ordea, niri bakarrik; baita Haren etorrera maite duten guztiei ere.

Jauna nire alde nuen eta Berak indartu ninduen, berri on osoa nire bidez zabal zedin eta herri guztiek entzun zezaten; Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau berriz ere gaitz guztietatik; salbatuko nau eta bere zeru erreinura eramango. Berari aintza gizaldiz gizaldi. Amen.

EBANJELIOA: Mt 16, 13-19

Aleluia: Mt 16, 18

R/. Aleluia.

V/. Zu Harria zara;

harri horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza;
eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. R/.

*Zu Harria zara; eta zuri emango dizkizut
zeruetako erreinuaren giltzak.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek, Filipoko Zesarea aldera etorri zelarik, honela galdetu zien bere ikasleei:
«Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?»

Eta haiek: «Batzuek, Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek, Elias; besteek, Jeremias edota profetaren bat».

Jesusek orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Eta Simon Pedrok erantzun zion: «Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea».

Jesusek orduan: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea! Ez haragik ez odolek, ez baitizu adierazi hori zuri, zeruan dagoen nire Aitak baizik. Eta horra Nik esan: zu "Harria" zara; harri horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza; eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurrean lotua, zeruetan ere lotua izango da; eta zuk lurrean askatua, zeruetan ere askatua».

Oparigaien gainekoa

Zure apostoluen otoitza izan dezala lagun, Jauna,
ekarri dizugun emaitzak;
eta zure gogoko egin gaitzala,
opari hau eskaintzerakoan.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pedro eta Pauloren egitekoak Elizan

V/. Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

V/. Gora bihotzak.

R/. Jaunagan dauzkagu.

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,

Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Pozez beterik goratzen ditugu gaur
 Pedro eta Paulo zure apostoluak:
 Pedro, fedearen lehenengo aitorlea;
 Paulo, fede beronen argitzailea;
 bata, Israelgo hondarrak bilduz, Eliza eraiki zuena;
 bestea, salbameneko berri ona jentilei ezagutarazi ziena.
 Biok, bakoitzak bere graziaz, lan egin zuten
 Kristoren familia bakarra biltzen;
 eta biak orain ospe berean bat eginik dauzkagu,
 gure gorespenak hartzeko.

Horregatik, santu eta aingeru guztiekin goresten zaitugu,
 beti eta beti [esaten] abesten dizugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunoi, Jauna,
 emaguzu lehenengo kristauen antzera bizitzea Elizan;
 ogia zatitzean eta apostoluen erakutsietan zintzo iraunez,
 bihotz bat eta arima bat izan gaitezen,
 zure maitasunak sendoturik.
 Jesu Kristo.

Uztailak 25 SANTIAGO, APOSTOLUA

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santiago izan zen
Ebanjelioagatik bere odola isuri zuen lehenengo apostolua;
egizu, haren odol isurtzeaz sendo dadila zeure Eliza,
eta haren zaindaritzapean dagoen zure herriak
leial jarrai diezaiola beti Kristo Jaunari.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 4, 33; 5, 12. 27-33; 12, 2

Santiagori ezpataz lepoa moztu zion.

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren biztueraren aitormena, eta haien eskuz herrian mirari eta harrigarri asko egiten zen. Ekarri zituzten apostoluak Batzar Nagusiaren aurrera, eta apaiz nagusiak galdetu zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu, Horren izenean ez erakusteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen erakutsiz, eta Gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue».

Pedrok eta apostoluek erantzun zuten: «Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena; ez gizakiena. Gure arbasoen Jaungoikoak biztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jaungoikoak goratu egin du bere eskuinez, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihozberitzea eta bekaturen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere».

Erantzun honek haserretu zituen bizi-ro batzarrekoak, eta haiek hiltzea erabaki zuten. Eta Herodes erregeak Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion.

ERANTZUN SALMOA: Sal 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6

R/. Malkoz erein dutenek, pozez bilduko dute.

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
bageunden amets antzean.
Orduan bete zitzaigun ahoa barrez,
gure mihia goratarrez. R/.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:
«Jauna haundikiro jokatua dute».
Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:
Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,
Negebeko erreka urak bezala.
Malkoz erein dutenek,
pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan hor doaz negarrez,
ereiteko gari zorroa eramanez.
Pozik etorriko dira honuntzakoan,
gari balak eskuan. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ko 4, 7-15

Jesusen heriotza daramagu gorputzean.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ondasun hau buztinezko ontzitan darabilgu, honenbesteko indarra Jaungoikoarengandik dela ager dadin eta ez guregandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina ez itotzen; larri gaude, baina ez etsita; erasopean bai, baina ez eskutik utzita; lurrera botatzen gaituzte, baina ez hiltzen. Nonnahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gorputzean, Jesusen bizia ere gure gorputzean ager dadin.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara eramaten gaituzte Jesusengatik; Jesusen bizia ere ager dadin gure izate hilkor honetan. Horrela guregan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Liburu Santuak honela dio: «Sinetsi dut, eta horregatik hitzegin dut». Eta guk ere sinesmen espiritu bera dugularik, sinesten dugu, eta horregatik hitzegiten dugu; jakinik, Jesus Jauna biztu duenak Berak biztuko gaituela gu ere Jesusekin eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Hau guztia zuen onerako da; graziadunak ugaritzen direlarik, haien esker ona ere ugariagoa izan dadin Jaungoikoaren aintzarako.

EBANJELIOA: Mt 20, 20-28

Aleluia

R/. Aleluia.

V/. Gure Elizaren izar dirdaitsu, Santiago apostolua:
zure gorputza bakean dago;
zure aintza gure artean bizi da. R/.

Nire kaliza edango duzue.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin, eta aurrean ahuspeztu, eskabide bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta berak: «Eserrera ditzazula nire bi seme hauek, bata zeure eskuinetan eta bestea zeure ezkerretan, zure erreinuan».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete zuek, Nik edango dudan kaliza edateko?» Haiek: «Bai, gauza gara?» Berak orduan: «Nire kaliza edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; hori nire Aitak erabakitzen duen haiantzat da».

Beste hamarrak, hori entzutean, bizi-ro haserre jarri ziren bi anaiekin. Jesusek, berriz, Beregan bilduta, esan zien: «Badakizue, herrietako agintariek gogor hartzen dutela menpean herria, eta haundiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean haundi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari; eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego zuen menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen sari ematera».

Oparigaien gainekoa

Garbi gaitzazu, Jauna,
zure Semearen nekaldiko bataio salbagarriaz;
Kristoren kaliza edateko
lehenengoa izan zen Santiago apostoluaren jaiegunean
opari atsegingarria eskain diezazugun.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Apostoluaren zaindaritza

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun, betiereko Artzain Horri.

Santiagok, Kristoren testigu kutunak, iragarri zuen

zure Semearen heriotza eta biztueratik datorren erreinua,
eta bera izan zen apostoluen artean lehenengoa
Jaunaren kaliza edaten;
beronen zaindari laguntzaz
gordetzen da sinesmena gure herrietan,
eta zabaltzen lur osoan;
berau dute lagun Zugarako bidean erromes doazenek,
Zugana heldu arte,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregatik, Jauna, aingeru guztiekin batean
orain eta beti goresen zaitugu,
fede apalez [esaten] abesten dizugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
zure herriaren zaindari den Santiago apostoluaren jaiegunean
hartu ditugun dohain santuengatik;
bera laguntzaile dugula,
zaindu gaitzazu beti zeure babespean.
Jesu Kristo.

Uztailak 31
LOIOLAKO SAN IGNAZIO, apaiza
Bilbo eta Donostiako elizbarruti zaindaria

Otoitza

Jainko Jauna,
 zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko
 eman zenion Elizari Loiolako Ignazio santua;
 iguzu,
 bera lagun eta ejenplu dugula, gudukaturik lur honetan,
 harekin parte izan dezagula zeruko zorionean.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 30, 15-20

Bi bideak.

Deuteronomio liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion herriari Moisesen ahoz: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur ematen dizkizudan aginduak: Jauna, zure Jainkoa, maitatuz, Haren bidetik ibiliz, eta Haren aginduak, erabakiak eta esanak betez, biziko zara eta ugarituko; eta bedeinkatuko zaitu Jaunak, zure Jainkoak, jabe izateko sartuko zaren lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta zeure burua liluratzen uzten baduzu, jainko arrotzei belauna makurtzen badiezu eta zerbitzu egiten, gaurtik esaten dizut, nahitanahiez hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordan igarota menperatzera zoazen lurraldean.

Zeru-lurrak deitzen ditut gaur testigu: bizia eta heriotza, bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuedala aurrean. Zuk eta zure ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia Jauna, zure Jaungoikoa, maitatuz, Haren esana adituz, eta Hari loturik; Bera baita zure bizia eta zure egunen luzagarria; eta biziko zara Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki, eta Jakobi emango ziela hitzeman zien lurraldean».

ERANTZUN SALMOA: Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6

R/. Bai dohatsu,
gau eta egun Jaunaren legea
hausnartzen duena.

Bai dohatsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez zaiona,
 hobendunen bidean ez dabilena,
 lotsagabeen batzarrean esertzen ez dena.
 Ostera, Jaunaren legean atsegin duena,
 gau eta egun Haren legea hausnartzen duena. R/.

Ur ertzean aldaturiko zuhaitza bezala izango da,
 bere garaian ematen du fruitua;
 eta ostorik ihartzen ez zaio:
 zeregin guztietan ongi doakio. R/.

Ez horrela gaiztoak, ez horrela,
 haizeak daraman lastoa bezala izango dira.
 Zintzoen bidezain Jauna baitago,
 gaiztoen bidea, berriz, hondamendirako. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 10, 31–11, 1

Egizue dena Jaungoikoaren aintzarako.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuelarik, egizue dena Jaungoikoaren aintzarako. Ez eman gaizpiderik, ez judutarrei, ez greziarrei, ez Jaungoikoaren Elizari. Nik ere neure aldetik guztiei ematen diet atsegin, ez neure onari begira, haienari baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

EBANJELIOA: Lk 9, 18-26

Aleluia: Mt 5, 12a

R/. Aleluia.

V/. Poztu zaitezte eta alaitu,
 haundia izango da eta zuen saria zeruetan. R/.

*Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari,
 har beza egunero bere gurutzea eta jarrai biezat.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesus bakarrik otoitzean ari zela Hamabien aurrean, honela galdetu zion: "Nik zurekin zertan?"

jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste batzuek, Elias; besteek, berriz, aintzinako profetaren bat biztu dela». Hark orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jaungoikoaren Mesias».

Baina Hark inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta esan zien: «Beharrezkoa da, Gizonaren Semeak neke haundiak jasatea: zaharrek, apaiz nagusiek eta idazlariek gaitzetsi egingo dute eta hil; baina hirugarren egunean biztuko da».

Eta Jesusek esan zien guztiei: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza egunero bere gurutzea eta jarrai biezat.

Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia Niregatik galtzen duenak, salbatu egingo du.

Zertarako du gizonak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?

Norbait Niretaz eta Nik erakutsiaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere edertasunean eta Aitaren eta aingeru santuen aintzatan datorrenean».

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,
Ignazio santuaren jaiegunean ekarri dizugun eskaintza;
eta santutasun guztiaren iturri den sakramentu honek
gu ere santu egin gaitzala egian.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Jainkoaren aintzarik haundiena.

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zure Semearen lagun izatera
deitu baitzenuen Loiolako Ignazio santua,
Haren maitasunak berotuta,
beste askoren gogoak
zure aintzarik haundiena bilatzera biztu zitzan,
zure zerbitzurik zintzoena mundu guztian iragar zezan

eta apostolu maitasuna ezaugarri duen Lagundia sortu,
zure herriaren onerako,
Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.

Beronen bitartez, aingeruek zure aunditasuna goستن dute,
espiritu dohatsuek zure ospea adoratzen,
goiko indarrek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak baititu zerutar guztiak elkartzen.
Onar ezazu, Jauna,
haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere
geure kantu hotsak:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jauna, Ignazio santuaren egun honetan
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen opariak
eraman gaitzala
betierean zure aintza neurrigabea gorestera.
Jesu Kristo.

Abuztuak 6 JAUNAREN ANTZALDATZEA (B)

Jaia

Otoitza

Jainko Jauna, zure Semearen Antzaldatzean,
Moises eta Elias testigu zirela,
fedeko misterioak sendotu zenituen,
eta zeure seme-alaba egingo gintuzula harrigarriro adierazi;
egizu, zure Seme maitearen hitza entzun dezagula,
harekin zeruko zorionean parte izan dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Dn 7, 9-10. 13-14

Haren soinekoa, elurra bezain zuria.

Daniel Profetaren liburutik.

Begira nengoela, aulkiak jarri zituzten han,
eta gizon zahar bat eseri zen.
Haren soinekoa, elurra bezain zuria;
buruko ilea, artile garbia bezala;
haren aulkia, su,
eta aulkiaren gurpilak su-gar.
Suzko ibai bizi bat zerion haren aurretik.
Milaka zituen morroiak,
miloika bere aurrean zerbitzariak.
Auzia hasi zen, eta zabaldu ziren liburuak.
Eta oraindik begira nengoela,
gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen,
zeruetako hodeietan zetorrela.
Gizon zaharrarengana hurbildu zen,
eta haren aurrean aurkeztu.
Agintaritzatza, ospea eta erregetza eman zitzaizkion;
eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak
zerbitzari zituen.
Haren agintea, betiereko agintea da,
inoiz ere amaituko ez dena;

eta haren erregetzak
ez du azkenik izango.

ERANTZUN SALMOA: Sal 96, 1-2. 5-6. 9

**R/. Errege da Jauna,
Goi-goiko, lur guztiaren gainetik.**

Errege da Jauna, alai bedi lurbira!
Poztu bitez uharte guztiak!
Inguruan laino eta hodei beltza dakartza,
Zuzena eta Bidezkoa ditu bere aulkiaren oinarri. R/.

Mendiak ezkoa bezala urtzen dira Jaunaren aurrean,
lur guztiaren Jaunaren aurrean.
Adierazten du ortziak haren zuzentasuna,
herri guztiek dakuste haren edertasuna. R/.

Zu, Jauna, Goigoiko, lur guztiaren gainetik,
oso garai zaude jainkotxo guztien gainetik. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Pe 1, 16-19

*Guk geuk entzun genuen,
zerutik etorritako ahots hori.*

San Pedro Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jaunaren indarra eta azken etorrera ezaguterazi nizkizuenean, ez nizkizuen nik asmatutako ipuinak esan, baizik eta geure begiz ikusitako Haren haunditasuna. Gorespena eta aintza hartu zituen Hark Aita Jaungoikoarengandik, aintza bikain hartatik harako hitz hura etorri zitzaionean: «Hau da nire Semea, nire Maitea: Honengan dut nire atsegina». Guk geuk entzun genuen, zerutik etorritako ahots hori, Berarekin mendi santuan geundela. Guzti honek sendotu egiten du guregan Profeten hitza; eta ederki egiten duzue zuek hitz horri erne-erne egotean, toki ilunean argi egiten duen argi ontziari bezala, harik eta eguna argitzen hasi arte, eta artizarra zuen bihotzetan sortu arte.

EBANJELIOA: Mk 9, 2-10

Aleluia: Mt 17, 5c

R/. Aleluia.

V/. Hau da nire Semea, nire Maitea;
honengan dut neure atsegina. Entzuiozue. R/.

Hau da nire Semea, nire Maitea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi goi batera igo zen haiekin bakarrik, eta hiruen aurrean antzaldatu egin zen. Haren jantziak distiratsu, zuri-zuri bihurtu ziren, inongo zuritzailek zuritu ez ditzakeen bezala. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedro mintzatu zen orduan, eta honela esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Hiru txabola egin ditzagun: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen ere; zeharo beldurrak harturik baitzeuden.

Orduan hodei bat sortu zen eta estali egin zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Maitea. Entzuiozue». Eta halako batean, beren ingurura begiratu, eta ez zuten Jesus besterik ikusi berekin.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik biztu arte. Agindu hori gorde zuten, eta elkarri galdetzen zioten, zer izan ote zitekeen «hilen artetik bizte» hori.

Oparigaien gainekoa

Santu egizkizu, Jauna, gure emaitzak,
zeure Seme antzaldatuaren misterioaz;
eta Haren argiaren distiraz
garbi gaitzazu gure bekatuetatik.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Antzaldatzearen misterioa

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,

Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beronek, gurea bezalakoa zen bere gorputza
argi betez jantzita agertu zuenean,
bere aintza erakutsi zien
aukeratutako testigui.
Horrela prestatu zituen bere ikasleen bihotzak
gurutzearen lotsaria garaitzeko;
eta Elizaren buru izanik,
bere gorputz osoan argi egingo zuen distira
agertu zuen Beragan.

Horregatik, zeruko talde guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz haundi Horri,
etengabe [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, zeure Semearen aintza
agertu zenuen Antzaldatze egunean;
iguzu, zure eskutik hartu dugun janari honek
zure Semearen antzeko egin gaitzala.
Jesu Kristo.

Abuztuak 15
ANDRE MARIA BIRJINAREN ZERURATZEA

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta arima,
 Maria Birjina sortzez garbia, zeure Semearen Ama;
 iguzu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,
 harekin batean zeruko ospea irits dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap 11, 19a; 12, 1. 3-6a. 10ab

Emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko.

Apokalipsis liburutik

Ireki zen, zeruan dagoen Jaungoikoaren etxea, eta Haren barruan elkargo kutxa agertu zen. Ikusgarri haundia agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan.

Beste ikusgarri bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri haundi bat; zazpi buru eta hamar adarrekoa; eta buruetan zazpi koroa zituen. Haren isatsak zeruko izarrek hirutatik bat arrastaka zeramatzan eta lurrera bota zituen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak izan zuen, herri guztiak burdin zigorrez zuzenduko dituen semea; hartu zuten seme hori eta Jainkoaren aulkira eraman zuten. Emakumeak, berriz, ihes egin zuen basamortura, Jainkoak prestatutako leku batera.

Eta oihu haundi bat entzun nuen zerutik:

«Orain etorri da salbarena,
 gure Jainkoaren indarra eta erregetza,
 eta Haren Kristoren ahalmena».

ERANTZUN SALMOA: Sal 44, 10. 11-12. 16

**R/. Erregina, Ofirko urrez apaindurik,
 zure eskuinean dago zutik.**

Erregeen alabak bidera datozkizu,
 erregina, Ofirko urrez apaindurik,
 zure eskuinean dago zutik. R/.

Entzun, alaba, eta ikus, aldera ezazu belarria:
 ahaztu ezazu aitaren etxe eta herria.
 Erregeak zure edertasuna irrikatu du;
 Bera duzu jaun, egiozu ahuspez agur. R/.

Pozik eta alai dakarte, eta sartzen dira
 erregearen jauregira. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 15, 20-27a

*Aurrena Kristok, lehen fruitu bezala;
 gero, kristau guztiek.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Biztu da Kristo hilen artetik, lo daudenetan lehen fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon baten bidez etorri da hildakoen biztuera ere. Adanengan guztiek heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiek. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen fruitu bezala; gero, kristau guztiek, Hura berriz etortzean. Ondoren, azkenekoek, Kristok Jainko Aitari erreinua itzultzen dionean, ahalmen, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren. Berak eduki behar baitu erregetza, Jainkoak «etsai guztiak Haren oinazpian ipini arte». Heriotza izango da, azkenik ezereztuko den etsaia; izan ere Liburu Santuak honela dio: «Guztiak haren oinazpian ezarri ditu».

EBANJELIOA: Lk 1, 39-56

Aleluia

R/. Aleluia.
 V/. Maria zeruetara jaso izan da;
 pozik daude aingeruak. R/.

*Haundiak egin dizkit Ahalguztidunak:
 gora jaso ditu ezerezak.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera; eta Zakariasenean sartu, eta Isabeli agur egin zion.
 Isabelek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Isabel Espiritu Santuaz bete zen eta honela esan zuen oihi haundiz: «Bedeinkatua zu

bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren
ama niregana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez
sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!»

Orduan Mariak esan zuen:

«Haundiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat nire barruna;
Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.
Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,
haundiak egin baitizkit Ahalguztidunak:
Santua da Haren izena,
eta Haren errukia gizaldiz gizaldi,
beldur diotenengana.
Bere besoaren indarra erabili du,
buru-harroak suntsitu ditu;
bota ditu beren aulkitik haundikiak,
eta gora jaso ditu ezerezak;
ondasunez bete ditu gose zeudenak,
eta esku-hutsik bidali asko zutenak.
Bere gain hartu du Israel, bere morroia,
errukia gogora zaiola;
gure gurasoei hala zien hitzemanak,
Abrahani eta ondorengoei betiko esana».

Hiru hilabete inguru egon zen Maria Isabelekin, eta gero etxera joan zen.

Oparigaien gainekoa

Igo bedi Zugana, Jauna, gure eskaintza gartsua;
eta Andre Maria zeruetara jasoaren otoitzez
egizu, gure bihotzak ere
beti Zuganako bidean ibil daitezela.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Mariaren zeruratzearen aintza

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
 nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
 Jauna, Aita guztiz santu,
 Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaur, Maria Birjina, Jaungoikoaren Ama,
 zerura jaso izan baita.
 Berau dugu, egunen batean aintzaz betea izango den
 zure Elizaren hasiera eta irudia;
 berau du bere itxaropen eta poz-iturri
 oraindik bidean erromes doan zure herriak.
 Ez duzu utzi hilobian usteltzen,
 zure Semea miragarriro sortu zuen amaren gorpua:
 biziaren iturria munduari eman zion gorputz garbia.

Horregatik, aingeru taldeekin batean,
 goosten zaitugu,
 pozez beterik [esaten] kantatzen dugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;
 iguzu, Andre Maria zeruetara jasoaren otoitzez,
 biztueraren aintzara irits gaitezela.
 Jesu Kristo.

Irailak 14 GURUTZE SANTUAREN GORALPENA

Otoitza

Jainko Jauna, gizon-emakume guztiak
zure Semearen gurutzeko heriotzaz salbatu nahi izan dituzu;
egizu, misterio hori mundu honetan ezagutu dugunok
erospenaren fruitua irits dezagula zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Zenb 21, 4-9

*Sugeren batek inori hozka egiten zionean,
tupikizko sugeari begiratzen zion
eta sendatu egiten zen.*

Zenbakien liburutik

Egun haietan, Hor menditik Itsas-Gorri aldera abiatu ziren hebertarrak, Edongo lurraldea inguratuz. Bidez aspertuta, Jainkoaren eta Moisesen aurka marmarrean hasi ziren: «Zertarako atera gaituzu Ejiptotik, basamortuan hiltzeko? Ez da, ez ogirik, ez urik; eta asperturik gaude janari txar honekin».

Orduan Jaunak pozo mihiztodun sugeak bidali zizkion herriari; hauek hozka egiten zieten, eta israeldar asko hil ziren. Herria Moisesengana joan zen, eta esan zion: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra marmar eginez. Eskaiozu Jaunari ken ditzala sugeak gugandik». Egin zuen otoitz Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu suge bat, eta ipini haga baten muturrean. Sugeak hozkatuak izan diren guztiak, hari begiratzen badiote, sendatuko dira». Egin zuen Moisesek tupikizko suge bat eta hagaren muturrean ipini zuen. Sugeren batek inori hozka egiten zionean, tupikizko sugeari begiratzen zion eta sendatu egiten zen.

ERANTZUN SALMOA: Sal 77, 1-2. 34-35. 36-37. 38

R/. Ez ahaztu Jainkoak eginak.

Entzun irakaskizun hau, ene herria,
nire ahoko hitzetara itzuli belarria.
Alegitan zabalduko dut ahoa,
aterako ditut aintzinako ezkutuak. R/.

Hiltzen zituenean hasten ziren Haren bila,
berriro Jainkoaren bila.
Gogoan zuten Jainkoa harkaitz zutela,
eta Jainko Goigoikoa beren askatzailea. R/.

Baino aho zuriz limurtzen zuten,
eta mihiz gezurra zioten.
Bihotzez ez ziren zuzen Harekikoan,
ez ziren leial Haren elkargoan. R/.

Hark, hala ere, kupituz, errua barkatzen zien,
eta ez zituen hondatzen;
haserreari askotan galga eman zion,
osotara bere sumina isuri ez zien. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 2, 6-11

*Apaldu egin zuen bere burua,
horregatik Jainkoak goratu egin zuen.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bereaz hustu egin zen,
morroi izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurlean eta lurpean,
eta mihi guztiek aitor dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

EBANJELIOA: Jn 3, 13-17

Aleluia

R/. Aleluia.

V/. Gorespen Zuri, Kristo, bedeinkatua Zu,
zure gurutzeaz salbatu baituzu mundua. R/.

Altxa beharra da Gizonaren Semea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zion Nikodemori:

«Inor ez da zerura igo,
zerutik jaitsi zena besterik: Gizonaren Semea.
Moisesek basamortuan sugea altxa zuen bezala,
hala altxa beharra da Gizonaren Semea;
sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan.
Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,
bere Seme bakarra eman dio;
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,
baizik eta betiko bizia izan dezan.
Jaungoikoak ez baitu bere Semea,
mundua galtzera bidali;
baizik eta Haren bitartez mundua salba dadin».

Oparigaien gainekoa

Opari honek garbi gaitzala, Jauna, bekatu guztietatik,
beronek kendu baitzuen gurutzeko aldarean
mundu guztiko bekatua.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Gurutze Santuaren garaipena

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,

Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Gurutzeko zuhaitzean ezarri baituzu
gizon-emakume guztien salbamena:
heriotza sortu zen toki beretik sor zedin bizia,
eta zuhaitzean izan zedin garaitua
zuhaitzean garaile izandako etsaia,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beronen bitartez, aingeruek zure haunditasuna goستن dute,
espiritu dohatsuek zure ospea adoratzten,
goiko indarrek Zuri ahuspez agur egiten,
poztasun berak baititu zerutar guztiak elkartzen.
Onar ezazu, Jauna,
haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere
geure kantu hotsak:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jesu Kristo gure Jauna,
zure eskutik hartu dugun janariak indarberriturik,
Zuri otoitzez gaude:
gurutzeko zuhaitzaren bidez biziberritu gaituzunok
eraman gaitzazu biztueraren zorionera.
Errege bizi baitzara.

Azaroak 1 SANTU GUZTIEN OROIPENA

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santu guztien aintza eta irabaziak
egun berean ospatzea ematen diguzu;
horrenbeste laguntzaile ditugunez gero,
emaguzu oparo, eskatzen dizugun errukia eta barkamena.
Zure Seme Jesu Kristo.

LIRAKURGAIA: Ap 7, 2-4. 9-14

*Talde haundi bat ikusi nuen,
inork zenbatu ezin halakoa,
enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa.*

Apokalipsis liburutik

Nik, Joaneke, beste aingeru bat ikusi nuen sortaldetik igotzen. Jaungoiko biziaren seilua zeukan; eta oihu haundiz hotsegin zien, itsasoa eta lurra zigortzeko zeuden lau aingeruei, esanez: «Ez zigortu lurrik, ez itsasorik, ez zuhaitzik, harik eta gure Jaungoikoaren zerbitzariei ezaugarria bekokian ezarri arte». Eta entzun nuen ezaugarridunen zenbakia: ehun eta berrogeitalau mila, Israelgo leinu guztietatik.

Horren ondoren, talde haundi bat ikusi nuen, inork zenbatu ezin halakoa, enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa, aulkiaren eta Bildotsaren aurrean zutik, zuriz jantziak, eta palma adarrak eskuetan. Eta oihu haundiz hotseginez, honela zioten:

«Salbamena, aulkian eserita dagoen
gure Jaungoikoarena da, eta Bildotsarena».

Aulkiaren, zaharren eta lau bizidunen inguruan zeuden aingeru guztiak ahuspez erori ziren aulkiaren aurrean, eta Jaungoikoa gurtu zuten, esanez:

«Amen!

Bedeinkapena, aintza eta jakinduria,
esker ona eta ospea, ahalmena eta indarra
gure Jaungoikoarenak dira,
gizaldi eta gizaldietan. Amen!»

Eta zaharretako batek honela esan zidan: «Nortzuk dira eta nondik datoz zuriz jantzirik dauden hauek?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, Zuk jakingo duzu!» Hark orduan: «Hauek nekaldi haunditik datozenak dira. Bildotsaren odoletan garbitu dituzte

jantziak».

ERANTZUN SALMOA: Sal 23, 1-2. 3-4ab. 5-6

R/. **Hau da, Jauna,
zure aurpegi bila dabiltnanen taldea.**

Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen dutenak,
lurbira eta bertan bizi direnak.
Hark eman dizkio itsasoak oinarri,
eta ibaiak sendogarri. R/.

Jaunaren mendira nor igoko?
Haren toki santuan nor egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituen,
huskerietara jotzen ez duena. R/.

Horrelakoak hartuko du bedeinkapena Jaunarengandik,
zuzentasuna, salbatzaile duen Jainkoarengandik.
Hau da Haren bila dabiltnanen taldea,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila dabiltnanena. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 1-3

Den bezalakoa ikusiko dugu Jainkoa.

San Joan Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok:
Begira zenbaterainoko maitasuna
agertu digun Aitak:
Jaungoikoaren seme nahiz alaba izena daramagu,
baita izana ere.
Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen,
Jainkoa ere ezagutu ez zuelako.
Senide maiteok, orain Jaungoikoaren seme-alaba gara;
gero izango garena, oraindik ez da ageri.
Badakigu, Jauna agertzen denean,
Haren antzeko izango garela,
den bezalakoa ikusiko baitugu,
Harengan itxaropen hau duen guztia

garbitu egiten da, Hura garbia den bezala.

EBANJELIOA: Mt 5, 1-12a

Aleluia: Mt 11, 28

R/. Aleluia.

V/. Zatozte Niregana nekatuok, lanpetuok;
eta Nik arinduko zaituztet —dio Jaunak—. R/.

*Poztu zaitezte eta alaitu,
haundia izango da eta zuen saria zeruetan.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, jende taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus eta, eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak honela erakusten zien:

«Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;

berena dute eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak otzanak;

berak izango dira eta lurraren jabe.

Zorionekoak, nehar egiten dutenak;

poztuak izango baitira.

Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak;

aseak izango baitira.

Zorionekoak errukitsuak;

hauek iritsiko dute eta errukia.

Zorionekoak, bihotzez garbi direnak;

hauek ikusiko dute eta Jaungoikoa.

Zorionekoak bakegileak;

Jaungoikoaren seme eta alaba esango baitzaie.

Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;

hauena da eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuek, Niregatik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituztenean eta gezurretan asma ahalak zuentzat esaten dituztenean; poztu zaitezte eta alaitu, haundia izango da eta zuen saria zeruetan».

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizu, Jauna,

Santu guztien omenez egiten dizugun eskaintza;

eta zeruan Zurekin hilezkor aitortzen ditugunok
lurrean gure laguntzaile senti ditzagula.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Gure ama Jerusalemen aintza

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Pozez beterik ospatzen dugu gaur zure hiri santua,
geure ama dugun zeruko Jerusalem:
han dauzkagu orain bildurik gure senide zoriontsuak
beti eta beti Zu goratzen.

Hara goaz gu ere, fedearen bidetik,
erromesak erbestean bezala,
pozik ikusten ditugula zeruko argi ederrean
Elizaren seme-alabarik onenak;
beroiek ditugu laguntza eta eredu gure ahultasunean.

Horregatik, santu hauekin eta aingeru guztiekin batean,
bihotz batez goralpen hau [esaten] kantatzen dizugu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, Santu guztien jaiegun honetan,
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen dizugu,
zure maitasun beteaz santu egin gaitzazun,
eta, lurreko mahai santu honetatik,

zeruetan prestaturik daukazun mahai santura eraman gaitzazun.
Jesu Kristo.

Azaroak 9 LETRANGO ELIZA SAGARATZEA

I. IRAKURGAIA: Ez 47, 1-2. 8-9. 12

*Ura ikusi nuen jauretxetik ateratzen;
eta ur hori iritsi zitzaaien guztiak, salbatu egin ziren.*

Ezekiel Profetaren liburutik

Egun haietan, jauretxeko atarira eraman ninduen berriro aingeruak; jauretxeko ate azpitik ura zerion sortalderuntz; jauretxea ere sortalderuntz begira zegoen. Ura, berriz, jauretxearen eskuin aldetik jaisten zen, aldarearen hego aldera. Iparraldeko atetik aterarazi ninduen, eta etxe inguruan barrena eguzki aldera begira zegoen ateraino eraman. Eta han ere eskuin aldetik zihoan ura.

Eta honela esan zidan: «Ur hau sortalderuntz doa; eta Araba ibaira jaitsi eta ur usteleko itsasoan sartuko da, eta itsasoko urak garbitu egingo ditu. Ibai hori noranahi sartzen dela, hango uretako bizidun guztiak biziko dira, eta arrainak ugari izango dira; ur hau hara sartuz gero, itsasoak garbitu egingo dira; eta ibaia sartzen den toki guztietan bizia izango da. Ibai ondoan, haren bazter bietan, mota guztietako zuhaitz fruitudunak haziko dira; haien hostorik ez da eroriko, ez zaie fruiturik bukatuko ere. Hilero fruitu berriak emango dituzte, horko urak santutegitik sortzen baitira. Eta fruitu horiek janari izango dira, eta hostoak sendagai».

ERANTZUN SALMOA: Sal 45, 2-3. 5-6. 8-9

**R/. Ibai besangek alaitzen dute Jainko hiria,
Goigoikoaren bizileku guztiz santua.**

Jainkoa dugu gordeleku eta indar,
Hura atera zaigu estualdian laguntzaile azkar.
Horregatik ez gara beldurtuko lurra bada dardaratzen,
nahiz mendiak itsas erdira erortzen. R/.

Ibai besangek alaitzen dute Jainko hiria,
Goigoikoaren bizileku guztiz santua.
Jainkoa dauka erdian, ez da kolokatuko,
argi txintarekin Jainkoak du lagunduko. R/.

Gudari taldeen Jauna gurekin,
Jakoben Jainkoa gaztelu sendo gurekin.
Etor eta ikus Jaunak eginak,
lurrean egiten dituen harrigarriak. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 3, 9b-11. 16-17

Jaungoikoaren etxe zarete.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Zuek Jaungoikoaren etxe zarete. Jainkoak eman didan graziaren arabera, nik oinarriak ipini ditut, etxegile trebe bezala; eta beste batek eraikitzen du etxea. Ikus beza bakoitzak, nola eraikitzen duen. Ipinita dagoen oinarriaz besterik, ez dezake inork ipini; eta oinarri hori, Jesu Kristo da.

Ez al dakizue, Jaungoikoaren etxe zaretela eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jaungoikoaren etxea hondatzen duena, Jaungoikoak hondatu egingo du. Jaungoikoaren etxea santua baita; etxe hori, berriz, zuek zarete.

EBANJELIOA: Jn 2, 13-22

Aleluia: 2 Kro 7, 16

R/. Aleluia.

V/. Leku hau aukeratu dut eta sagaratu
—dio Jaunak—,
eta nire izena hemen egongo da beti zuekin. R/.

Bere gorputzaren jauretxea esan nahi zien.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, judutarren Bazkoa hurbil zegoen, eta Jesus Jerusalemeko igo zen. Jauretxean idi, ardi eta uso saltzaileak aurkitu zituen, eta dirulariak eserita. Zigor bat lokarri egin eta jauretxetik bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Eta ikasleak, idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure etxearekiko maiteminak jango nau».

Orduan judutarrek, tartetik sartuta, esan zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?» Eta Jesusek: «Xeha ezazue jauretxe hau, eta hiru egun barru jasoko dut». Judutarrek erantzun zioten: «Berrogeitasei urte behar izan ziren jauretxe hau egiteko, eta Zuk hiru egunetan jaso?» Baina Jesusek bere gorputzaren jauretxea esan nahi zien.

Hilen artetik berpiztu zenean gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sine...

eta Jesusek esandako hitza.

Abenduak 8

ANDRE MARIA BIRJINAREN SORTZE GARBIA

Otoitza

Jainko Jauna, Maria Birjinaren Sortze garbiaz,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari,
eta Semearen heriotzatik zetorren graziari esker,
bekatu guztietatik garbi gorde zenuen Ama;
egizu, Andre Mariaren otoitzez,
gu Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 3, 9-15. 20

*Haserrea sortuko dut
zure jatorriaren eta emakumearen artean.*

Genesis liburutik

Jaungoiko Jaunak gizonari dei egin eta honela esan zion: «Non zara?» Eta hark erantzun: «Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larrugorri nengoelako, beldurrez, gorde egin naiz».

Jaunak orduan: «Eta nork esan dizu, larrugorri zeundela? Jatea galerazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan».

Orduan Jaungoiko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak atzipetu nau, eta nik jan».

Orduan Jaungoiko Jaunak sugeari esan zion: «Hori egin duzulako, madarikatua izango zara abere guztien eta landako pizti guztien artean; sabel gainean ibiliko zara narraztaka; zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu.

Haserrea sortuko dut zure eta emakumearen artean, zure jatorriaren eta harenaren artean; honek buruan emango dizu, zuk orpotik helduko diozunean».

Gizonak emazteari «Eba» ezarri zion izen, bizidun guztien ama delako.

ERANTZUN SALMOA: Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4

**R/. Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.**

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
Oroitu da bere maitasunaz,
Israel etxeari dion leialtasunaz. R/.

Ikusi dute lur muga denek
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eresi. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-6. 11-12

*Kristorengan aukeratu gintuen Jainkoak,
mundua sortu baino lehen.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez,
zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena.

Harengan aukeratu baikintuen,
mundua sortu baino lehen,
Haren aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitezen.
Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez;
bere Seme maitearengan
hain ugari eman digun graziaren aintzak

Bera gorespenez bete dezan.

Kristorengan oinordeko gertatu gara gu ere; horretara deituak izan gara, gauza guztiak Berak nahi bezala egiten dituenaren erabakiz. Eta Kristorengan uste on izan genuenok, Jainkoaren aintzaren gorespen izango gara.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

Aleluia: Lk 1, 28b. 42b

R/. Aleluia.

V/. Poztu zaitez, Maria, graziaz bete hori:

Jauna zurekin;

bedeinkatua zu emakumeen artean. R/.

Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Dabiden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen birjina, eta Maria zuen izena.

Aingeruak, haren etxean sartuta, esan zion; «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jaungoikoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta «Jesus» ezarriko diozu izen. Haundia izango da; Goigoikoaren Seme deituko dute; eta Jainko Jaunak Haren aita Dabiden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta Haren erregetzak ez du azkenik izango».

Baina Mariak orduan aingeruari: «Nola daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zuregana, eta Goigoikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik zuregandik jaioko den Santua, Jaungoikoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide Isabel ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabetea aurkitzen da; Jaungoikoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, Maria Birjinaren Sortze garbia ospatzean eskaintzen dizugun opari salbagarria;
eta bera, zure graziaz,
erru guztietatik garbi egin zenuen bezala,

haren otoitzez, atera gaitzazu gu ere bekatu guztietatik.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Mariaren eta Elizaren misterioa

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Maria Birjina dohatsua
jatorrizko bekatuaren kutsutik garbi gorde baitzenuen
eta graziaz betea egin,
zeure Semeari Ama berdingabea emateko.
Berarengan erakusten zenuen Eliza,
Kristoren emaztea,
zimurrik eta errurik gabea
eta guztiz ederra.
Birjina garbi honek eman behar zigun Salbatzailea,
gure bekatuak garbitzen dituen Bildots garbia.
Andre guztien artean berau aukeratu zenuen,
zeure herriarentzat laguntzaile izan dadin
eta santutasun betearen ispilu miragarri.

Horregatik, aingeru taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik [esaten] kantatzen dugula:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jainko gure Jauna,
Maria Birjinaren sortzea

jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen,
grazia berezi baten bidez;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala gudan
bekatu horren zauriak.
Jesu Kristo.